

EZKUTAKETAN

“Sei...zazpi...zortzi...bederatzi... eta hamar! Lixto!” bukatu du zenbaketa izebak. Eskerrak azerien pare jaitsi ditudala eskailerak, lau hanketan, ehiztarien tiroetatik ihesi dabiltzan animalien antzera, eta gaur ere, igandero moduan, ikuilua hartu dut ezkutaketan jolas egiteko gotorleku gisa, baina lasto artean ezkutatu ordez, behien egurrezko ganbela zaharraren barruan sartu naiz.

Ipurditxoa eserita eta bi hankak ganbelaren kanpoan zintzilik ditut -kakalardo bat buruz gora eguzkia hartzen balego moduan- eta konturatu naiz hain txikia ere ez naizela. Hemendik aurrera badakit zer erantzun “ hamar urteko umeak txikiak zarete, Manex” esan eta jarraian, izebak masailean egin ohi didan atximurka keinuari “ ez gara hain txikiak, ni ez naiz hain txikia, eta ezkutaketan jolasteko ez naiz edonon kabitzen”.

Isiltasuna da entzun dezakedan gauza bakarra, hiru minutuetatik behin “Manex, non zaude? segituan harrapatuko zaitut” entzuten den izebaren oihu gozoaz salbu, eta pentsatu dut, ikuilua, gutxitan izango zela isiltasunaren jabe, baserria beti baitzen zarataren lagun, zer esanik ez igandeetan. Baina denborarekin, amona xahartu, izeba herrian lanean hasi, uzta betirako jaso, eta txekorrak lurperatu ziren. Baserriko ganbarara basoko intsektuak bizitzera joan eta ikuilua abererik gabe gelditu zen arte. Bitarte horretan jaio nintzen ni eta hemen nago, ur gabeko ganbelan trabaturik.

Ez naiz urduritzen hasiko, ontzi barruan sartu baldin banaiz, ateratzeko moduren bat ere egongo da. Izebak askotan kontatu izan dit haren osaba Frantziskano batek nola esaten zion eraztuna hatzean sartu eta gero irten ezinik ibiliz gero, izerditzea zela giltza, eraztuna kanporantz irristatu zedin. Berdin egin beharko dut nik, nola edo hala izerditu, ipurdia ganbelatik irteteko.

Lortu dut zutik jartzea, baina atzealdean itsatsirik dut ontzia “Manex, hasi hadi korrika” pentsatu dut eta super heroi super ipurtargi bat bezala hasi naiz ikuiluan lasterka, ahalik eta isilen, baina ahalik eta bizkorren, izebak entzun ez nadin, etortzen denerako, ezkutaleku hoberen batean itxaron diezaiodan. Katapun! jausi da txarroa lurrera “Azkenean Manex, lortu dinagu askatzea”. Soinua disimulatzeko behien “muuuuuu” -a egin dut marru, hartara, izebak, ni non nagoen susmatu ordez, animaliairen bat dabilela pentsatuko du eta ez nau harrapatuko.

-Manex, hemen al zaude? iritsi da ikuilura.

Kaka zaharra, berehala topatu nau!

-Bihurri hori, orain zure txanda da.

“Sei...zazpi...zortzi...bederatzi...hamar...hogeitabi....eta...ehun! Banoa izeba, tximista baino azkarrago aurkituko zaitut.

Ezkutaketan harrapatzaile izatea tokatzen zaidanetan baserria goitik arakutzen hasten naiz beti. Beraz, eskailerak binaka igo eta ganbarara egin dut salto, “Tan-ta-ta-txaaaaaannnn” besoak zabaldu ditut izebari sorpresa eman nahian baina hemen ez da bere arrastorik. Sukaldera jaitsi eta lapurren pauso txikitik ireki dut garbigailuaren ate borobila, izeba barruan ezkutatuta egongo zela konbentziturik, baina kulero eta galtzerdi zikinez gain, ez dut besterik aurkitu. Egutegiko orriak ere banan bana pasa ditut, paisaien argazkien artean, agian gorde zitekeela pentsatuz eta agorriko argazkira heltzean, bertako belardian etzanda ageri den ardiak zera susurlatu dit “beegiratu beste nonbait, hemen ez dago zure izeba”. Beste nonbait, baina non? Ardiak begia kliskatu eta korroskada bota dit, “bee”, berehala itxi dut nik egutegia. Mahai azpia zeharkatu eta topatu dudan gauza bakarra hosto bat izan da, “zu ere ezkutaketan jolasean, hostotxo?” laster harrapatuko zaitu neguak baina zaude lasai, nik lagunduko dizut. Eskuekin hartu eta mototsako goman sartuko zaitut, baserriko indio izango gara, seguru mozorroak izeba lehenago aurkitzen lagunduko didala, erdi indio, erdi irrintzi oihua botaz irten naiz sukaldetik.

Azken aukera gelditzen zait, gelaren batean behar du egon gordea izebak. Lurrean etzan eta oinekin indarka gorputza bultzatuz, gela guztiak arakatu ditut, armairuak, komunak eta oheak barne, sugedorri bizkorrenak egingo lukeen pare, baina ez dago izebaren arrastorik. “Hau duk hau marka Manex, hi huan familiako aditua jolas honetan, eta orain harrapakina aurkitzeko komeriak?”.

Ez dago inor baserrian, ez dakit non dagoen ezkutatuta izeba eta nire esploratzaile sena nekatzen ari da. Laranja kaxa hutsekin dorre bat eraiki eta goran eserita deskantsatuko dut. Gustura egoten da hemen eserita, polita da erraldoi batek baserria ikusiko lukeen alturatik ikusi ahal izatea nik ere. Gainera, begien parean dut baserriko leihorik garaiena eta usaindu dezaket bertatik sartzen den sagarrondoaren perfumea, belar berdearena; entzun ditzaket txoriak elkarri kantari, pagoen adarrak txaloka eta ikus dezaket eguzkia hodeien atzean ezkututzen, leihoa itxita egoen arren.

Bitxia da, ez dut inoiz pentsatu paisaia ere ezkutaketetan jolasten denik, eta noski, egunero gainera, ez soilik igandeetan, hau da zortea duena! Eguzkia gauero ezkututzen baita lainopean, baita txoriak euren kabietan edo zuhaitzak basoan, baserria bera ere, mendi artean da ezkutatua, eta ni konturatu ez!

Mundu guztia dabil jolas honetan, norbaitengandik edo zerbaitetik ezkutatu nahian, baina niri izeba aurkitzea dagokit, beste guztiari hor konpon!

Kaxen gainean itxarongo diot, ziur bere gordelekuan egoteaz aspertu, bertatik atera eta ttak! goitik ikusiko dut izeba. Orduan lurrera jauzi egin eta "lixto, harrapatu haut" esanaz besarkatuko dut estu.

Baina pareko ordulariaren orratzak, dantzan dabilta biraka, denbora badoala mehatxu eginaz. Ezin naiz eserita zain geratu, hau ez da jolasetan aditua den baten estrategiarik hoberena, beste zerbait pentsatu behar dut. Salto bakarrean lurrartu, dorrea deseraiki eta pasilloa isilik isilik gurutzatuz, hara zerekin egin dudana topo! Paretan zintzilik den basurde buru disekatuarekin.

"Tomaxito, esaidazu non dagoen izeba" agindu diot ahapeka, baina ez dit deus erantzun. "Tomaxito, esaidazu non demontre dagoen izeba" errepikatu diot apur bat ozenago, baina ez dit erantzun. Kopeta zimurtu, eskuak aho ertzean kiribildu eta kanpaiak baino indartsuago egin dut garrasi "Atera dadila mundu osoa bere gordelekitik. Atera daitezela euliak astoen putzetatik, paisaiak egutegietatik eta satorrak zuloetatik. Atera daitezela azenarioak sustraietatik, zizareak letxugetatik eta zonbiak hilobietatik. Atera daitezela sastrakak mendia suntsitzen dabiltzan aldamiotan eta putreak baserri hau eraistera ausartuko den garabiaren bolantera, eta atera zaitez zu izeba, zauden lekuan zaudela!"

Garrasiaren oihartzunak bete du baserria eta inguru osoa, baina txintik ere atera gabe jarraitzen du Tomaxitok, niri zuzen begira, letagin zorrotzekin irribarretsu. Gainontzean, isiltasuna da berriz nagusi. Zalaparta hotsa entzun da bat-batean eta burua biratu dut nondik datorren jakiteko. Badirudi ikuilutik datorrela. Hostoa oraindik ere mototsean dudala baieztatu eta eskailerak barandailari helduta jaisten hasi naiz, "Tan-ta-ta-txaaaaaannnn" esan dut erdi beldurti erdi urduri, besoak koldar zabaldua. Hara non dagoen izeba, ikuiluan zehar korrika eta jauzika, izerdi patsetan, ipurdia ganbelatik atera ezinik, super heroi super ipurtargiaren moduan.

"Izeba, zu ere ez zara hain txikia, eta ezkutaketan jolasteko ez zara edonon kabitzen" esan diot, harengana hurbildu eta hanka puntetan, masailean atximurka keinu gozoa eginaz. "Harrapatu haut".

Lajuse

Ezizena:

